

**2004KO OTSAILAREN 26AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIAREN AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita seia.

HILABETEA: Otsaila.

URTEA: Bi mila eta laua.

HASIERAKO ORDUA: Hemeretziak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

LEHENDAKARIA: Patxi Plazaola Muguruza

BILDUAK: Pello Garaialde Goikoetxea
Imanol Aranburu Gutierrez
Joan Martin Aldaregia Etxebarria
Malu Valles Fernandez
Aitor Aldasoro Iturbe
Ana Asla Egialde
Jose Antonio Ibaibarriaga Usabiaga
Jose Antonio Sanchez Gutierrez
Alfonso Segade González
María Pilar Vispo Chamosa
Julio Herreros Serna
Gonzalo Zaldo eta Arana
Iñaki Saldaña Herrero

ETORRI GABEAK: Jon Kortaberria Lasa
Arantza Aseginolaza Azkargorta
Jon Olano Arrese

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA

2004ko urtarrilaren 29ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da bildutakoek berarekiko zeresanik ez dutelako.

Julio Herreros jaunak (PP): “No estoy conforme con el hecho de que los miembros de la plataforma “Igartatik”, se hayan sentado junto a los concejales.”

2.- ARAU SUBSIDIARIOAK. Ittolako, 6. Sektoreari buruzko Arau Subsidiarioei behin-behineko onespena ematea.

Alkate jaunak, hirigintza-batzordeko proposamenaren berri eman du:

“Gaia: 6. Srekiko Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen aldaketari behin-behineko onespena ematea.

Udalbatza Osoak 2003ko irailaren 4an, 6. Srekiko Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen aldaketari hasierako onespena eman zion eta espedientea jendaurrean jarri zen hilabeteko epean eta iragarkiak argitaratu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Berrian eta “Diario Vascon” . Epe horretan ez zen inolako alegaziorik aurkeztu.

Aldi berean, espedientea Errepideen Zuzendaritza Orokorra eta Eusko Jaurlaritzako Ur Zuzendaritzara bidali zen.

Errepideen Zuzendaritza Orokorra, 2003ko urriaren 23ko datarekin txostena eman zuen, adieraziz, 6. Sektoreari dagokion Hiri Antolaketako Arauen Aldaketa onartzeko ez dagoela eragozpenik, gerora egingo den alorreko planean aurreikusten bada, Salbatoreko bideen eta Mandubiara doan GI-2635 errepidearen arteko bidegurutzea hobetu egin behar dela.

2003ko urriaren 7an Ur Zuzendaritzak aurkako txostena eman zuen, Arriaran errekaaren azken zatia, estali gabe eta baldintza naturaletan mantenduko dela bermatu arte.

Errekerimendu horri erantzunez, 2003ko azaroaren 14ko idatziaren bitartez, Arriarango errekatxoaren ahoan, 6. Sektorea eta A29 HAREN arteko bide-loturari irtenbide bat aurkitu nahian proposamena bidali zen. Aztertu ondoren Ur Zuzendaritzak, 2004ko urtarrilaren 26an aldeko txostena eman zuen.

Horren ondorioz, Hirigintza Batzordeak, Udalbatza Osoari ondorengo proposamena egiten dio.

Lehenik. 6. Srekiko Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen aldaketari behin-behineko onespena ematea.

Bigarren. Gipuzkoako Foru Aldundiari igortzea, hala badagokio behinbetiko onespena eman diezaion.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

EB/IU, PP eta EAJ/PNV-EAko zinegotziek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Jose Antonio Sanchez jaunak (PSOE/PSE-EE): “Nosotros vamos a votar en contra por el mismo razonamiento que venimos explicando continuamente respecto del S6. La inicial transacción que se hizo para la compra y adquisición del terreno y el planteamiento que se viene haciendo al respecto sobre el desarrollo parcial de un polígono en el que todavía no se sabe lo que va a ocurrir con el trazado del tren de alta velocidad.”

Besterik gabe, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 11 (EAJ/PNV-EA, PP, EB/IU)

Aurkako botoak: 3 (PSOE/PSE-EE)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da proposamena.

3.- IZARTU. Erabateko programa baterako dirulaguntza eskatzea.

Alkate jaunak: “Para participar en el programa Izartu es la segunda vez que el Gobierno Vasco realiza una convocatoria. La primera vez se convocó hace cuatro años y se trata de un programa de revitalización socio-económica y regeneración territorial de zonas urbanas desfavorecidas. El 20 de marzo termina el plazo para presentar los proyectos a ejecutar entre los años 2004 a 2008. Pensamos que podemos cumplir dos de los criterios que se exigen para obtener la subvención. De esa manera tendríamos derecho a un 30% de la subvención de los proyectos aprobados y a un máximo de dos millones de euros de subvención.

Beraz, orain proposatzen dena zera da, eskaera aurkezteko baimena ematea. Programa honetan sartuko genituzkeen proiektuak, ondorengoak izango lirateke: biribilgua aldatzea, osasun zentro berria egitea, Bernedo-eneko aparkalekua hobetzea eta kirol-instalazioen berrikuntza egitea. Proiektu horiek

guztiak, 2004tik 2007ra bitartean gauzatuko lirateke eta onartuz gero, bi miloi euroko dirulaguntza jasoko genuke.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Iñaki Saldaña jaunak (EB/IU): “A favor con matices. Estamos de acuerdo con que se solicite la ayuda, pero siempre que parte de ese dinero se destine a la compra de suelo para viviendas de VPO.”

Alkate jaunak: “La ayuda sería para los proyectos que ya he explicado.”

Beste ordezkari guztiek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 14 (EAJ/PNV-EA, PP, EB/IU eta PSOE/PSE-EE)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, aho batez, ondorengo erabakia hartu da:

“Kontutan izanik gainbehera etorritako hirialdeak gizarte eta ekonomia mailetan biziberritzeko eta lurraldetasunari begira berpizteko erabateko egitarauari (Izartu II Egitaraua) laguntzak emateko EHAA (2004-01-22) argitaratutako deialdia eta Udalek egitarauak aurkezteko bete behar dituzten irizpideak ikusirik, egiaztatu egin da Beasainek gutxieneko baldintzak betetzen dituela eta laguntzak ematen diren ekintzetarako, agintealdi honetan garatzeko proiektu batzuk badituela.

Horren ondorioz, Udalbatzari zera proposatzen zaio: Erabateko Egitaraua garatzeko bi milioi euroko dirulaguntza eskatzea.”

Une honetan, Jon Kortaberria jauna sartu da batzarraldira.

4.- BEKAK. Lankidetzan arituko diren gazteentzat laguntzak emateko oinarriak. 2004.

Alkate jaunak: “Puntu hau ongizateetik dator eta urtero bezala ongizatearen bidez, Udal honek herritarrei beka batzuk eskaintzen dizkie, hirugarren munduko lurraldeetara laguntzaile moduan joateko.”

Alkateak, gizarte-ongizate batzordeburuari hitza eman dio eta hark honela dio: “Gai hau ongizate-batzordeak orain dela bi aste onartu zuen.

Urteroko gauza da. Aurten ere sei gazte beasaindar joango dira hirugarren mundura, uda-sasoian. Aldaketa txiki batzuk egin dira orain onartu behar dugun deialdian.

laz nahikoa zen eskaera egiteko garaian erroldatzea, baina orain iazko abenduaren 31n erroldatuta egon beharra dago. Dokumentazioa aurkezteko garaian ere, zerbait erraztu da eta euskararen baldintza sartu da, zeren eta gero beren esperientzia ikastetxeetan azaltzen dute.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

EB/IU eta PPko ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Jose Antonio Sanchez jaunak (PSOE/PSE-EE): “Estoy de acuerdo con que se introduzca la exigencia del conocimiento del euskera, pero que no sea determinante, sino que más bien sea un complemento.”

Bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 15 (EAJ/PNV-EA, PP, EB/IU eta PSOE/PSE-EE)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, aho batez onartu dira 2004. urterako lankidetzan arituko diren gazteentzat laguntzak emateko oinarriak.

5.- ORDENANTZA. Udal-tasen arloan laguntzak emateko ordenantzari hasierako onespena ematea.

Imanol Aranburu (EAJ/PNV-EA): “Dakizueenez, urtero Udalak, ura eta estolderia ordaintzeko diru-laguntzak ateratzen ditu. Dirulaguntza horiek beharrez dagoen jendearentzat dira. Aurten aldaketa txiki bat egin da. Kontusail hau guztira 7.000 €-koa da osotasunean eta eskaerak 90 inguru izaten dira. Beraz, bakoitzari ematen zaion laguntza ez da oso handia. Laguntza eskatzeko garaian hainbat dokumentu aurkeztu behar dira. Baina diru-kontuak aztertzeko garaian, arazo asko sortzen ziren. Hori dela eta, hemendik aurrera, sarrerak eta ondarea kontuan hartuko dira, baina ez kontu korranteak.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 15 (EAJ/PNV-EA, PP, EB/IU eta PSOE/PSE-EE)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

“**Lehenik.** Udaleko tasen arloan laguntzak emateko ordenantzari hasierako onespena ematea.

Bigarren. Apirilaren 18ko 781/1986 Erret Dekretu Legegileko 56. eta ELOLEko 49. artikuluan xedatuaren arabera, informazio publikoan jartzen da 30 eguneko epean, murtziloak eta iradokizunak aurkezteko. Epe horretan alegaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onartuta geldituko da.”

6.- KUDEATZEKO GOMENDIOA. Gipuzkoako Ur Kontsorzioari hainbat kudeaketa egiteko gomendioa.

Alkate jaunak, Joan Martin Aldaregia, Zerbitzu-batzordeburuari hitza eman eta honek proposamenaren berri eman du: “Desde el Consorcio de Aguas de Gipuzkoa, se va a hacer una labor de control de vertidos, sobre todo, de las grandes industrias, ya que en la depuradora de Legorreta se están generando problemas por las diversas sustancias que en ella se acumulan. Para evitar todo esto, ellos nos piden que les cedamos la gestión del control. Nos parece oportuno efectuar esta cesión porque nosotros no disponemos de personal para realizar un control de este tipo. En consecuencia, la comisión de servicios, somete a la consideración del Ayuntamiento Pleno la siguiente propuesta de acuerdo:

“**Lehenik.** Gipuzkoako Ur Kontsorzioari hainbat kudeaketa gomendatzeko ondorengo hitzarmena sinatzea:

“BEASAINGO UDALAREN eta Gipuzkoako UR KONTSORTZIOAREN arteko hitzarmena, estolderia-sarearekin lotutako hainbat kudeaketa haren esku uzteko.

Donostia,

BILERAN DAUDENAK

Batetik, Viktoriano Gallastegi Altube Jauna, Gipuzkoako Ur Kontsortzioko Lehendakaria.

Bestetik, Patxi Plazaola Muguruza, Beasaingo Udaleko Alkate-Udalburua.

Alde biek legezko gaitasuna aitortzen diote elkarri Hitzarmen hau egiteko eta, horretarako, ondorengoa

AZALTZEN DUTE:

Toki Jaurbidearen oinarrien Legeak, 1985eko apirilaren 2koak, ezartzen du udalek eman beharreko nahitaezko gutxieneko zerbitzuen artean dagoela hondakin-uren ur hustuketarena, estolderia-sarearen bidez egitekoa.

Lege horretan bertan ezartzen da halaber, udalek obligazioa dutela hondakin urak arazteko.

Gipuzkoako Ur Kontsortzioa, Beasaingo Udala bertako kidea da, hornidura eta saneamendu azpiegiturak ustiatu eta finantzatzeko sortu zen.

Gainera, Estatutuetan jasota dagoen bezala, 7. artikuluan, Kontsortzioak bere helburuak zabaldu ahal izango ditu Uraren Ziklo Osoaren beste alderdi batzuetara.

Batzuetan litekeena da isurketa batzuk kaltegarriak izatea saneamendu-instalazioetarako (estolderia, estolda nagusiak eta ur-hondakinen araztegiak), osasun publikorako eta Jabari Hidrauliko Publikorako.

Isurketak zaintzeko koordinaziorik ez dagoenez, kasu gehienetan estolderiaren udal-sarean gertatzen direlako eta hortik estolda nagusira eta Kontsortzioaren araztegiara pasatzen direlako, isurketak ez dira behar bezala zaintzen.

Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren estatutueta 9. artikulua araberak, Gipuzkoako Urak, S.A. sozietatearen bitartez egiten ditu bere kudeaketak Kontsortzioak.

Adierazitakoaren ondorioz, Gipuzkoako Ur Kontsortzioak eta Beasaingo Udalak uste dute elkarren interesekoa dela esparru orokor bat ezartzea, Beasaingo udalerrian estolderiako hustuketa-sarea behar bezala kudeatu ahal izateko, beti ere Legeak Udalari ematen dizkion eskumenak babestuta.

Horregatik guztiagatik, batetik, Viktoriano Gallastegi Altube jauna, Gipuzkoako Ur Kontsortzioko Lehendakariak, Gipuzkoako Urak, S.A. kudeaketa-

-sozietatearen bidez, eta bestetik, Patxi Plazaola Muguruza Jauna, Beasaingo Udaleko Alkate-Udalburuak, biek ere legezko gaitasun osoz dihardutela, honako hau

ERABAKI DUTE:

Hitzarmen honen bidez, Beasaingo Udalak, Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren esku uztea jabari hidrauliko publikoari buruz lehen hizbaketan ezarritako jarduerak (gestioak) egiteko eginkizuna.

Jarduera horiek, ondorengo lege eta arau hauek arautuko dituzte:

- a) Toki Jaurbidearen Oinarrien Legeak, 1985eko apirilaren 2koak.
- b) Estolderia-sarera egiten diren isurketak arautzeko Ordenantzak.
- c) Hitzarmen honetako hizbaketek.
- d) Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren estatutuek.

Akordio hau betetzeko, hizbaketa hauek ezarri dira:

HITZARMEN-HIZBAKETAK

LEHENA.- Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren esku utzitako jarduerak.

1. Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren esku uzten da jardun hauen kudeaketa:

- a) Udaleko Estolderia Sareari buruzko baimenak izapidetzea.

Erabaki-proposamenak, baldintzekin-eta, Udalari bidaliko zaizkio.

- b) Udal Estolderiako isurketak zaintzeko lana.
- c) Zigor Espedienteak eta Erabaki Proposamenak izapidetzea.
- d) Behin-behinekoz neurriak hartzea eta isurketa-baimenak aldi batez baliogabetzea, Instalazioei, Sareei eta Jabari Hidrauliko Publikoari kalterik ez sortzeko.

2. Gipuzkoako Ur Kontsortzioak, lehen aipatu diren kudeaketa-jarduerak egitean, estatuko eta udaleko arauak betetzen direla bermatu egingo du.

Halaber, Beasaingo Udalak ezartzen dituen irizpide orokorreari lotuko zaizkie jardun horiek.

BIGARRENA.- Administrazioen arteko harremanak.

Administrazio bietara interesdunek aurkeztutako agiriak zuzenean bidaliko zaizkio dagokion organoari, Hitzarmen honetan jasota datorren esku uztearena benetan bete dadin.

Era berean, Beasaingo Udalak eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren organo eskudunak arbitratuko dituzte koordinazio-formulak, informazio-hornidura, aholkularitza teknikoak, e.a., Administrazio bien egitekoak hobeto betetzeko.

HIRUGARRENA.- Jarraipen eta Kontroleko Batzorde Mistoa.

Hitzarmen hau zuzen betearazteko, Jarraipen eta Kontroleko Batzorde bat eratuko da, eta batzorde hori Beasaingo Udalaren bi ordezkari eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren hiru ordezkari osatuko dute.

LAUGARRENA.- Hitzarmena egokitzea.

Gipuzkoako Ur Kontsortzioak eskaturik, hori antolatzen aldaketarik izanez gero, esku uztearen terminoak egokitu ahal izango dira, eta horretarako akordioa hartu beharko da.

BOSGARRENA.- Hitzarmena aldatzea eta amaiera iragartzea.

Hitzarmen hau aldatzeko, bi aldeen arteko akordioa beharko da eta amaiera iragarri baino sei hilabete lehenago behar ere.

Edozelan ere eta gestioa horren esku uzteari dagokionez, amaiera iragartzeko kausa izango da ondorengo hauxe:

Bai Gipuzkoako Ur Partzuergoak eta baita Beasaingo Udalak ere,, aipatutako mandatu edo agindu hori indarrik gabe gelditzen dela adieraztea.

SEIGARRENA.- Indarrean sartzea eta indarraia.

Hitzarmen hau ****/**/** indarrean sartuko da, eta iraupena mugagabea izango du, alde batek idatziz amaiera iragartzen ez badu, baina urtebetelehenago adierazi beharko du hori.”

Bigarren. Patxi Plazaola Muguruza Alkate jaunari hitzarmen hau sinatzeko baimena ematea,.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Iñaki Saldaña jaunak (EB/IU): “Por falta de más datos, me voy a abstener.”

Beste guztiek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 14 (EAJ/PNV-EA, PSOE/PSE-EE, PP)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 1 (EB/IU)

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da proposamena.

7.- LAGUNTZAK EMATEKO BAREMOA. Udaleko tasen laguntzak emateko baremoa onartzea.

Alkate jaunak, Imanol Aranburu Ongizateko batzordeburuari hitza eman eta honek proposamenaren berri eman du:

“2003. urtean, ur, zabor eta estolderi kontzeptuengatik ordaindutako ordainagiritako kopuruak berreskuratzeko diru-sarreraren baremoa ondorengoa izango da:

- Hileko 404,72 euro arte, ordainagiriko zenbateko guztia lortzeko.
- Hileko 404,73 eurotik 540,77 euro arte, ordainagiriko zenbatekoaren % 75 lortzeko.
- Hileko 540,78 eurotik 676,80 euro arte, ordainagiriko zenbatekoaren % 50 lortzeko.”

Aurreko urtearekiko % 2,6 igo da.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

8.- ALKATETZAREN PROPOSAMENA. Presoen eskubideen aldeko ez-
-arazko proposamena.

Alkate jaunak: "Gipuzkoako Batzar Nagusiek 2004ko otsailaren 11n "Presoen eskubideen aldeko ez-arazko proposamena", onartu zuten. Onartu ondoren Udal bakoitzari bidali diote, udalen atxikimendua lortzeko.

Proposamena ondorengoa da:"

Lehenena.- Benetako bake-prozesua bultzatu eta gauzatzeko urratsak ematekotan, gatazkaren humanizaziotik abiatu behar dela aldarrikatzen dugu. Honetarako, guztion sufrimendua aitortu eta onartu behar dugula pentsatzen dugu, inolako salbuespenik gabe eta giza urraketen egilea edozein delarik ere.

Bigarrena.- Gatazkaren humanizazioari begira, gure ustez garrantzi berezia du sakabanaketaren ondorioz presoen senideek jasaten duten doaneko sufrimendua ekiditea.

Hirugarrena.- Beraz, gaur egungo legediaren gauzatzeak eskatzen duen bezala eta oinarritzko giza printzipioei jarraituaz, preso dagoen euskaldun orok zigorra beren inguru sozial eta familiarretan bete dezala aldarrikatzen dugu, hau da, Euskal Herriko espetxeetan.

Lauugarrena.- Era berean, gaixotasun sendaezinak dituzten presoek berehalako askatasuna eskura dezatela, legediari eta giza duintasunari zor zaion moduan.

Bosgarrena.- Ildo honetatik, gaixotasun larria izateagatik 1992garren urtean askatua izan ondoren, duela gutxi espetxeratu izan den Manu Azkarate Tolosako herritarraren behin betiko askatasuna eskatzea, bere familia zain lagunartera lehenbailehen itzul dadin eskatzen dugu. Halaber, bere senideei Batzar Nagusi hauetako elkartasuna agertzea, giza eskubideak hausten diren guztietan egiten den bezala.

Seigarrena.- Gipuzkoako udalei dei egiten diegu akordio honetan aipatutako eskakizunekin berriro bat egin dezatela, gipuzkoar gehiengoaren ahotsa ozen eta garbi entzuna izan dadin.

Zazpigarrena.- Testu honen berri ematea espainiar estatuaren Barne Ministerioari, Espetxe Zuzendaritzari eta espainiar estatuak Hego Euskal Herrian dituen gobernu-ordezkariei. Halaber, honen kopiak, Gipuzkoako udal guztiei ere bidali egingo zaizkie eskakizunekin bat egin dezaten."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Iñaki Saldaña jaunak (EB/IU) proposamenarekiko adostasuna azaldu du.

Julio Herreros jaunak (PP): “La utilización de la palabra conflicto, de tanto repetirse interesadamente, va a acabar de gravarse en las mentes y en la conciencia de la ciudadanía. Se trata de confundir el asesinato, el secuestro, el chantaje, la coacción y la violencia etarra. Con una guerra declarada entre dos partes. Aquí sólo hay una parte que ejerce la violencia y otra que la sufre. Un sector que vulnera los derechos humanos y otros cuyos derechos están vulnerados las 24 hora del día. Se trata de confundir a las víctimas con los verdugos, al terrorista con los tribunales y para todavía enmarañar más los conceptos, calificar de sufrimiento gratuito al dolor de los familiares de los terroristas encarcelados, cuando miles de familias de Gipuzkoa, en el País Vasco y en toda España, no tienen ni siquiera la posibilidad de acudir a visitar a sus familiares, seres inocentes, víctimas de este hipotético conflicto que tanto le gusta hablar a la Izquierda Abertzale. Nosotros decimos un rotundo no a la propuesta de Alcaldía, acatando como siempre hemos hecho las resoluciones judiciales, que son las que deben pronunciarse de la correcta aplicación de la legislación vigente. La humanización de este repetido e hipotético conflicto, es decir, del chantaje, del asesinato, de la coacción, en definitiva del terrorismo etarra, sólo se producirá cuando ETA desaparezca, cuando por fin seamos un pueblo libre, sin miedo a expresar sus opiniones y a convertir el escenario político en un lugar de encuentro, en paz y libertad.”

Jose Antonio Sanchez jaunak (PSOE/PSE-EE): “Nosotros nos vamos a abstener, pero si quería explicar alguna cuestión. En absoluto estamos de acuerdo, sobre todo con el punto segundo y tercero, porque como dice el profesor Antonio Beristain, hoy se proclama universalmente el deber en estricta justicia, no por mera caridad, o filantropía o humanitarismo, de prestar mucho más en cantidad y calidad atención y satisfacción a las víctimas. Con ello quiero decir que en ningún principio básico sobre derechos humanos está recogido, que los presos deban de cumplir su condena en un entorno social y familiar. Sin embargo, probablemente tiene más derecho, las atenciones y satisfacciones a las víctimas para que puedan ver que sus victimarios no estén cerca de su vecindad. No obstante, nos vamos a abstener porque en relación a casos personales como es el de un preso con una enfermedad, es una situación delicada.”

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “Nosotros lo vamos a apoyar porque creemos que es un derecho fundamental de los presos e incluso está recogido en la legislación española, y creemos que defender a unos no quiere decir ir en contra de otros, que es el mensaje que nos quiere dar el partido popular y con la excusa de ETA, nos está privando de todo y nos está machacando, y por desgracia también los socialistas están sufriendo en este momento ese machaque.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 10 (EAJ/PNV-EA, EB/IU)

Aurkako botoak: 2 (PP)

Abstentzioak: 3 (PSOE/PSE-EE)

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da proposamena.

9.- MOZIOAK:

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): Nazioarteko emakume langilearen eguna ospatzeari buruz, bi mozio aipatzen dira gai-zerrendan, PSOE/PSE-EErena eta EB/IUrena eta azkeneko momentuan PPko mozioa sartu da. Egoera honen aurrean, hemen dugun emakumezkoen ordezkarietatik proposamen bateratua aurkezten da, aldez aurretik talde guztiekin adostasun batera iritsi ondoren.

Jarraian Alkateak, Ana Asla emakumezkoen ordezkariari hitza eman eta honek honela dio:

“Aurkeztutako mozioen izenburua konparatuz, hitz batean arreta jarri nahi nuke: langilea. Lan honen garrantzia azpimarratzeko asmoz, Marcelo Lagarde, antropologoak egiten dituen planteamenduei buruz, gogoeta batzuk egin nahi nituzke.”

“Los hombres contemporáneos no han cambiado lo suficiente como para modificar ni su relación con las mujeres, ni su posicionamiento en los espacios domésticos, laborales e institucionales. Algunas tendencias minoritarias se abren paso, pero incluso hombres que se pronuncian por relaciones equitativas están más dispuestos a ser amables con las mujeres o a sumarse a algunas de las causas del feminismo, que a hacer política feminista. También hay hombres, cuya identidad es la de ser avanzados, democráticos y progresistas que no consideran importante la emancipación de las mujeres. Estados, que colocan a las mujeres entre los grupos vulnerables y no las miran como sujetos políticos. Países en los que a través de acciones positivas, por ejemplo, las cuotas, todavía negocian el grado de exclusión política de las mujeres y ¡se consideran democráticos!. Mujeres que piensan que ya lograron todas las metas de transformación de género, y no se percatan que el género es su categoría social y a ella pertenecen la mayoría pobre y cuidadora del mundo: las mujeres. El feminismo del siglo XX, ha realizado la crítica del modelo super woman, y ha denunciado la explotación de las mujeres a través del trabajo invisible, y de la desvalorización de muchas de sus actividades, incluso del trabajo asalariado y de la relativa exclusión de la política. Ha logrado llevar a la agenda de las necesidades sociales, la violencia contra las mujeres y ha realizado pequeñas modificaciones jurídicas y legislativas en el Estado. Sin embargo, nos queda por desmontar el deber ser. El deber ser cuidadores de las mujeres, la doble jornada y la doble vida resultante. Eso significa realizar cambios profundos en la organización socio-económica, en la división del trabajo, en la división de los espacios, en el monopolio masculino del

dinero, los bienes económicos, en la organización de la economía, de la sociedad y del Estado. En el siglo XXI, ha de cambiar el sentido del cuidado. Hemos afirmado muchas veces, que se trata de maternizar a la sociedad y desmaternizar a las mujeres, pero ese cambio no significará casi nada sino se apoya en una transformación más profunda. Para la mayor parte de las corrientes feministas contemporáneas, la articulación de lo personal con lo social, conforma la complejidad de nuestro esfuerzo, de ahí la contribución de las feministas: primero, al visualizar y valorar el aporte del cuidado de las mujeres al desarrollo y bienestar de otros, creo que aquí no podemos olvidar a nuestras madres, abuelas, tías solteras, etc., en el cuidado de la infancia, de los miembros y enfermos de la familia, de los ancianos. Segundo, con la propuesta del reparto equitativo en la comunidad, en particular entre hombres y mujeres y entre la sociedad y el Estado y tercero, la resignificación del contenido del cuidado, como el conjunto de actividades y el uso de los recursos para lograr que la vida de cada persona de cada mujer esté basada en la vigencia de sus derechos humanos. La aplicación de la declaración universal de los derechos humanos, adoptada y proclamada el 10 de diciembre de 1948, por la Asamblea General de las Naciones Unidas es la que como mujer y como concejala de Beasain, reivindicó también en esta ocasión, recordando que en sus artículos 2 y 3 especifica entre otras cosas, que toda persona tiene todos los derechos y libertades proclamados en esta declaración, sin distinción alguna de raza, color, sexo, idioma, religión, opinión política o de cualquier otra índole, origen nacional o social, posición económica, nacimiento o cualquier otra condición. Y toda persona tiene también derecho a la vida y a su seguridad.

Con este preámbulo, que a buen seguro, habrá quienes no estén de acuerdo, agradezco los esfuerzos que se han hecho para llegar a una declaración conjunta de todos, porque creo que en este tema es importante la aportación y los matices de todas las personas que formamos la Sociedad.”

Onartzea proposatuz, ondorengo testua aurkezten da:

“Martxoaren 8ko Nazioarteko Emakumezko Langileen egunaren ospakizunarekin bat etorriz, Beasaingo Udaltzaria osoak emakumezkoen giza eskubideen aldeko jardunari bere babes osoa ematen dio eta bere eskumenen arloan konpromisoa hartzen du, gizonzkoen eta emakumezkoen berdintasuna lortzen lagunduko duten politikak eta jarduerak abian jartzeko, zehar-lerroan modukoak, zinegotzi guztien parte hartze eta laguntzarekin.”

Alkateak zera galdetu du, ea testu hau ikusita berek aurkeztutakoak bertan behera uzten dituzten ala ez.

EB/IU eta PPko ordezkariak baiezkoa diote.

Jose Antonio Sanchez jaunak (PSOE/PSE-EE): “Si, pero yo creía que lo que se presentaba era algo consensuado, pero no algo que presenta Ana Asla. Con toda la primera parte, sin estar en desacuerdo, me estoy enterando ahora. A veces, uno se sorprende por las formas.”

Ana Asla andreak (EAJ/PNV-EA): “El tema está que si estas propuestas se hubieran realizado con el suficiente tiempo, podríamos habernos reunido y comentar.”

Jose Antonio Sanchez jaunak (PSOE/PSE-EE): “La nuestra si no me equivoco está desde el lunes.”

Ana Asla andreak (EAJ/PNV-EA): “Y la última esta mañana.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

“Igartzatik” en mozioa Alkatetzak formalizatzen duena, Manu Azkarate preso politikoari buruz.

“Igartzatik” plataformakoek Alkateari baimena eskatu diote mozioa berek irakurtzeko.

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “Besteek ez badute inolako eragozpenik jartzen...”

Idazkariak, Alkate jaunak galdetu ondoren, zera esan du, mozioak Udalean ordezkariak duen talde politiko batek sinatuta aurkeztu behar direla eta horren ondorioz, berek irakurri eta defendatu behar dituztela.”

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “Forma aldetik ez litzateke zuzena izango, baina besteek ez badute inolako eragozpenik jartzen plataformakoek irakurtzeko...”

Gonzalo Zaldo jaunak (PP): “Si tienen la autorización del Alcalde para que la lean, que la lean pero desde el público sin estar sentados en la mesa de los concejales. No creo que deben estar sentados en una esquina de la mesa de los concejales. Estamos dispuestos a escuchar, a entender, a ser complacientes, a saber que es importante para ellos, pero hay que respetar la legalidad vigente.”

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “Yo por dos centímetros no discuto. Acepto que lean. Yo lo leeré en castellano.”

Jarraian “Igartzatik” plataformakoek ondorengo mozioa irakurri dute:

“2004ko Urtarrilaren 14an Manu Azkarate Tolosaldeko preso politiko ohia atxilotu zuten Martuteneko espetxean, gizarte laguntzailearengana ohiko hitzordura agertu zenean. Jakina da, Manu Azkarate 1992an gaixotasun sendaezin eta kroniko bat duelako geratu zela baldintzapeko askatasunean, orduko kode penaleko 60. Artikulua eta egungo 92. Artikuluaren babesean. Bere espetxealdiko azken garaietan denbora gehiago pasatzen zuen ospitalean presondegian baino, eta makina bat ebakuntza ere jasan behar izan ditu preso zegoela eta baldintzapeko askatasunean egonik ere. Bestalde, medikazio oso hertsia du eta beste edozein pertsonak baino zaintza handiagoa behar du elikadura aldetik ere. Ondorioz, eta bere gaixotasunaren ezaugarriak kontutan izanik, kartzelaratzek izan dezakeen eragina izugarria da, sor diezaiokeen kaltea itzulezina izan daitekeelarik. Atxiloketa honekin, Estatu Espainiarrak Euskal Herria eta bere eskubideen alde lanean ari diren guztiak suntsitzeko hartu duen erabakia agerian utzi du beste behin ere. Berriz ere, herri eta herritar gisa ditugun eskubide kolektibo eta indibidual guztien gaintik, indarraren arrazoia geratzen da agerian Estatuaren aldetik. Manu kartzelaratzeko mahai gainean jarri dituzten aitzakiak, horixe, banan-banan funtsik gabe erortzen diren aitzakiak besterik ez dira. Oso ondo dakite Espetxe Zaintzatik eman dituzten argudioak hutsalak direla, ez direla egia eta hori argitzeko frogak beraien eskuetan daudela. Manu Azkarateri eta bere ingurukoei bizitzea tokatzen ari zaien une larri hauetan, osoko Udal Batzar honek, honako puntu hauek onartzen ditu:

ERABAKIEN PROPOSAMENA

- 1.- Manu Azkarateren berehalako askatasuna exijitzen du Udal honek.
- 2.- Atxiloketa honen ondorioz bizitzen ari diren une latz hauetan Udal honek, Manu Azkarate bera eta bere senitartekoei elkartasun beroena adierazten die.
- 3.- Udal honen ustez, Manuren atxiloketarekin herri hau eta bere herritarrek dituzten eskubideen áurrean Estatu Espainiarrak bere mespretxurik handiena utzi du agerian; gaixo sendaezin bat gezurrezko argudioekin kartzelan sartuaz, bere bizitzak duen arriskua axola gabe.
- 4.- Udal honek, Manuren atxiloketaren aurrean hainbat alderdi eta komunikabideek duten jarrera salatu nahi dute, gertaeraren Larritasuna isildu eta beste alde batera begiratzen dutelako.
- 5.- Manu Azkarateren askatasuna exijitzeko, Udal honek, helburu horrekin egingo diren mobilizazio guztietan parte hartzeko deia egiten die herritarrei.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Iñaki Saldañak, EB/IUko ordezkariak, proposamenarekiko adostasuna azaldu du.

Julio Herreros jaunak (PP): “La primera protesta que quiero hacer de esta moción, Sres. del PNV, Sr. Alcalde, es que les den permiso a estos Sres. para leerla sentados en la mesa. Desde la amnistía general de 1977, en este país no hay presos políticos. El Sr. que Vds. llaman preso político fue juzgado y condenado en 1986 a 51 años de prisión por delitos como detención ilegal, llamémosle, secuestro, robo, falsificación, pertenencia a banda armada, es decir, al grupo terrorista ETA y tenencia de explosivos. Fue encarcelado por delitos terroristas, delitos cometidos junto a otras personas, otras víctimas de las que Vds. por desgracia, se olvidan, víctimas del terrorismo. Les quiero recordar que el Sr. Azkarate ha ingresado nuevamente en prisión por decisión del Juzgado Central de Vigilancia Penitenciaria, quien argumentó que el preso había incumplido las condiciones que fijó el Juez que decretó los beneficios penitenciarios en 1992, al haber faltado a algunas citas con su asistente social. Dicen Vds. que pasó más tiempo en el hospital que en la cárcel y que está sometido a una fuerte medicación y que debe de cuidar de una forma estricta su alimentación. Se muestran Vds. solidarios tanto con el Sr. Azkarate como con su familia, por motivos humanitarios. Lo que ocurre es que Vds. no miran a su alrededor. No tienen razones humanitarias para las personas que no son de su pensamiento único y las que tienen muy cercanas en su lugar. Por todo esto y porque creemos que sus razones humanitarias, su ética y su moral son un maquillaje o barra de labios, nuestro voto va a ser negativo.”

Gonzalo Zaldo jaunak (PP): “Euskal Herria es nuestra también. Nosotros no queremos exterminar a Euskal Herria.”

PSOE/PSE-EEko ordezkariak esan dute, proposamenarekiko abstenitu egingo direla.

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “Guk uste dugu, lehengo Gipuzkoako Batzar Nagusietako atxikimenduan garbi azaltzen zela gura jarrera. Beraz, abstenitu egingo gara.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 1 (EB/IU)

Aurkako botoak: 2 (PP)

Abstentzioak 12 (EAJ/PNV-EA, PSOE/PSE-EE)

Horren ondorioz, mozioa ez da onartu.

10.- ALKATETZAREN EBAZPENAK. 2004ko urtarrilaren 27tik 2004ko otsailaren 23a bitarte emandako Alkatezaren Ebazpenak.

2004ko urtarrilaren 27tik, 2004ko otsailaren 23a emandako Alkatezaren ebazpenen berri eman da.

11.- ESKAERAK ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean honakoak aurkeztu dira:

MANU AZKARATE PRESO POLITIKOARI BURUZ

Publiko artean dagoen pertsona batek: “Hay una ley por la cual se permite estar con la familia a aquel preso que esté en situación de enfermedad grave. Hay que definirse y decir si o no.”

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “También hay que leer la moción que nosotros hemos presentado. Expresamente solicitamos la libertad porque Manu Azkarate está sufriendo en sus carnes el incumplimiento de una Ley.”

Publiko artean dagoen pertsona batek: “Si pero esa es una moción de Diputación, esta es más del pueblo.”

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “Esta también es del pueblo y de más pueblos como es el de la Diputación.”

FORMARI BURUZKO ARAZOAK

Pello Garaialde jaunak (EAJ/PNV-EA), mekanismo bat ezartzea proposatzen du, formari buruzko arazoak konpontzeko.

Julio Herreros jaunak (PP): “En algunos Ayuntamientos hay Juntas de Portavoces en donde se debaten las mociones y después no pasan a Pleno.”

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “Aquí la costumbre es pasar a Pleno.”

Jose Antonio Sanchez jaunak (PSOE/PSE-EE): “Mucho me temo que todavía estamos en la situación que antes de Navidades expuso Alfonso Segade. Sólo nos salva que algunos tenemos estas y otras inquietudes, pero la situación de la minoría minoritaria, fracamente es muy fria. No obstante, nosotros no vamos a volver a pedir y menos rogar, que haya un funcionamiento democrático. Cuando no lo haya diremos que no lo hay, sin más crispación. La

utilización de un rodillo de ámbito político es real en Beasain, pero insisto la situación es la misma que describió Alfonso Segade hace cuatro meses.”

Eta tratatzeko beste gairik ezean, bilera arratsaldeko zortzietan amaitu da eta nik, Idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.